

## **EUSKALDUNAK POEMAREN SORTAROA ETA BERAREN IKUSPEGI OROKORRA**

*Donostia/San Sebastián,  
E.U.T.G., 1989*

*Joxemari Aranalde*

### **SORTAROA**

Ohar bat eginez hasi nahi dut nere hitzaldi hau. Nik hemen sarrera honetan, esan ditzakeedanak eta gehiago, zehazkiago adierazita eta zabalago emanik, *Jakin* aldizkarian aurki ditzakeela nahi duenak. Joxe Azurmendi, Jon Kortazar eta Lurdes Otegi dira idazleak, eta 29, 36 eta 39 dira aldizkariaren numeroak. Hiru euskalzaleei zor nien aitormen hori eginik, hasi nadin poemaren Sortaroa deitzen dutan sarrera honekin.

Euskal Pizkundera esaten zaion garaia da. Bada ekintza ederrik aldi honetan, gure herri hau suspertu beharrez. Eta besteak beste, bada talde bat —elite bat—, euskaltzale eta abertzale dena aldi berean, eta gure “herritasuna” —Oriek liokeenez— eskolaren kulturaren eraiki nahi duena.

Berak, jende eskolatuak dira; baina non eskolatuak? Erdal eskoletan. Eta beren jakintza erdal hizkuntzetan jaso dute. Eta erdal kultura jaso dute bakarrik. Ez bitarteko izan dute euskara beren ikasketetan, ez gai izan dute. Ez euskaraz ikasi dute, ez euskara ikasi dute, eta ez euskal gauzarik ikasi dute. Berek, ordea, maite dute gure hizkuntza, eta maite dute gure herria. Eta nahiz bata eta nahiz bestea, landu egin nahi dituzte.

Berak, hainbat erdera-mota ikasitako jendea dira. Eta miretsiak eta edereetsiak dituzte erdera horiek eta berorietan ikusi dituzten kulturak. Euskararen eta euskaraz ez dago horrelakorik. Gure hizkuntza, batez ere, ahotik belarrira eta belarritik ahora eta ahotik ahora dabilen eta bizi den hizkuntza bat da. Izaitekotasun ere, eliz literatura dauka zerbait landua; baina hori hizkera didaktiko bat da. Ez da literatura izena merezi duen zerbait. Eta gainera, zer da hori kultura haundien aldean? Gure jende honek, erdal hizkuntzetan ikusi eta ikasi dituen pareko kultura bat sortu nahi du gurean. Ezin du jasan, jende abertzale haren bihotzak, guk besteek hainako kultura bat ez izatea.

Ederra asmoa benetan! Asmoa edo ametsa? Artean behintzat asmo eta amets. Laister esnatuko dira. Entzungo da beren uste ustel horretatik atzarra-

raziko dituen abotsik. Miguel Unamunokoak asaldatzaten ditu gure euskalzale amestiak. Haiek hain maite duten hizkuntza horrek ez dauka kulturarik, eta ez dezake eduki ere. Hori “lengua de aldeanos” bat besterik ez da. Ez du balio kultura haundi baten ontzi izateko. Hori zahartua dago, eta zahar guztiari bezala, hiltzea dagokio.

Esan bazuen esan zuen gure On Miguelek berea. Izan zuen zeinek erantzunik. Orduan, eta geroxeago, eta gerozko honetan guztian, esan zaio esatekorik errektore famatuari. Bereak entzuna da.

Ez al du arrazoirik izango Unamunok; baina, zoritxarrez, oraindik ez diogu demostratu ez zuenik. Ez al gara orain bertan euskararen hil-kanpaiak jo eta jo ari?

Salamanca errektorearenak ez zituen kokildu gure euskalzaleak. Haren ateraldiaren mina bera, ezten bihurtu zen haientzat. Hitzezko gezurtapenak egin zizkioten haren esanari, eta egintzazkoa ere egin nahi zioten. Baina nola lortu beren asmo hura?

Erantzuna ximplea eta ulerterreza da: Literaturaren bidez. Zer da jendeak irakurtzen duena? Zerk egin ditu izendun beste erdara horiek eta zerk ikasarazi? Literaturak. Hori da egin behar dena gure honetan ere, berarenganako istimazioa sotarazi nahi bada.

Badakit norbaitek esango didala ez zela elederra, literatura, bakarrik sartzten beren asmoetan. Besterik ere nahi zutela, eta egin ere egin zutela. Eta egia da. Ele zientziatzkoa ere sortu nahi zuten, eta hasi ere egin ziren zeregin horretan. Hor daude beren *Fisia* eta *Kimia* eta Biblia eta abar eta abar. Dena zen euskararen eta euskaraz egin nahi zutena: Literatura eta zientzia.

Hala ere, etxean eta kanpoan itzala eta estimua izan zitzaizkien gure hizkuntzak, eta jendea erakar zezan, eta ikasia izan zedin hemen eta kanpoan jende eskolatuarengatik, literatura zen beharrezkoena.

Baina zein literatur-mota, ordea? Poesiaren aldera jotzen dute gure euskalzale hauek. Hori da Pizkunde aroari dagokiona. Lizardik esango duen bezala, “olerkariak berotu izan baitute erria bizkunde guztietan”. Poesiaz ongarritu behar da, beraz, euskaldunaren gogoia, herritasunaren fruituak eman ditzan.

Eta poesia hori sortu egin behar da. Itzulpenak ez du balio. Itzulpenak behar dira. Eta nolako indarrez ekiten diotelako lan horri! Baina ez da nahikoa. Sortu egin behar du gure herriak berea. Horrela bakarrik makurtuko da gure jende ikasia gure hizkuntzara. Bestela, berezko sorkuntzarik gabe, gure hizkuntzak ez du izango itzalik. Horrela bakarrik izan gaitezke, besteen pare, eta hori gabe, besteen morroi izango gara.

Poesia honek nolakoa edo zertsu izan behar zukeen ere, halako susmo bat bazebilen. Gero Orixek poemaren sarrerako bertsoan ederki adieraziko duenez,

“erri baten arnasa mamitu” beharko zuen poesia horrek. Euskal Herriaren nor-tasuna kantatu behar zuen, eta beraren agerpen poetiko bat izan. Ikus nola adierazten duen idea hori garai hartako kronistarik hoberenak, Lizardi haundiak, bertso ezagun haietan:

“Eder aunagu, mintzo joria  
eder, benetan, garoz jantzia;  
larre-loretik eztia,  
basotik euskal mamia,  
laster sortzen al duk, Olerkaria!

Ta, ala Jaunaren gogo baledi  
nik gogo dudan bezin gartsuki,  
euskotar azal ta mami,  
gure erriaren olerki  
garaia, norbaitek lenbait-lên begi!”

“Gure erriaren olerki” izatea dagokio, beraz, sortu behar dugun horri. Zehazkiegi ez bada ere, asmoa hor dago.

Lizardik “lenbait-lên” nahi du obra hori, eta On Manuel Lekuonak ez dai-tekeela urrun uste du. Hala aitortzen du:

“El genio no se hará esperar, su germen vive y palpita en el seno de esta evolución, que lo va fomentando, porque como dice Balmes, los genios no son los que hacen la evolución, son más bien su fruto, su producto, el verbo que fija su expresión definitiva.”

Ateetan daiteke beraz guk behar dugun *genio* hori. Pizkundearen haziak berak daukake bere baitan gure Homero edo gure Dante edo gure Verdaguer. Pizkundea heldua dago. Eboluzioa bere gingan da. Denborak kunplituta dago. Laister da umea.

Jaio da umea. Nikolas du izena. Ormaetxea abizena. Eta Orixe izenordea. Hau da hautatua. Gauza izango ote da gure gipuzkoar Naparroan hazia, tamaina horretako lan bati erantzuteko? Jakingo ote du “erri” honen “arnasa” nola “mamitu”?

Gomendio hori egiten diote Orixeri; baina inork ez daki hemen zer poesia-mota izan behar duen “gure erriaren olerki” delako horrek.

Herri honetan oraindainotsu —ordura artetsu— egin izan den poesia bakarra, herriarena da. Ez da jende ikasiarena edo landuarena edo eskolatuarena izan. Bertsolaritza du bere izen gure poesia gehientsuenak. Horren harira egin behar al da “erriaren olerki” delako hau? Edo elite baten gustoko eta zerbitzuko egin behar da? Herriaren molde zaharretan egiten bada, izango al du gure jende ikasia bereganatzeko hainbat edertasun?

Zein poesia mota behar dugun auzi honetan, Lizardik eman du epai zuzena. Ohizko moldeen aldekoen eta berrien aldekoen artean dagoen auzia, honela erabakitzen du Lizardik: “Bide berriak? —galdetzen du—. Bide guztiak” erantzuten du. Danak behar ditugu, lehengoak eta oraingoak.

Gure zarauztarraren erantzuna ederki dago, eta haren izpiritu elkarkoi, eta elkargarriari dagokiona da. Ez dago dudarik; baina horrek ez dio Orixeri korapilorik askatzen. Egilearentzat auzia lehenean gelditzen da.

Moldearena bat dela, moldekoarena da bestea. Zer molderatu da hurrengo arazoa, zer olerkitu —barka aditza—, zer kontatu eta kantatu. Ikus nola adierazten digun egileak berak gorabehera hori poemaren hitzaurrean: “Aspaldiago asia nintzan, Europa’n gertakari ezaguna dala ta Orreaga’ko edo Roncesvalles’ko gudu-erasoa ointzat artuki, lengo epopeia zarren antzera euskal-biziera emateko asmoz; baina gauzak ekarri egin bear ziran tiraka, etorri ez baitziran egiten.

Carlomagno, Roldan eta euskaldun buru ez-ezagunai agur eginik, bestetara jo behar izan dut bada azkenean. Europako poema geienak irauli ta aztertu nitun begiratuki, ta alakorik egiterik ez neukala igarri nion; batez ere, etxebarneko gauzak, lanbide, apustu, dantza ta abar, ezin agertu baititezke beren etorritzko burubide batean. Etorritzkoa egiten saiatu naiz beraz, ez ekarritzkoa.

Gauzak aroak dakartzin bezela ederrago ageri zaizkit.

Ekarria ez da erraza, ongi ekartzen behintzat; etorria, ots, ugaritasuna ez ta ere, gairik aski biltzen ez bada; etortasuna da zailenik eta bearrenik eta nere poema ontan ori ager dedin nai nuke”.

Beraz, albora utzi du Orreagako gudua. Hura “ointzat” hartu eta haren inguru Euskal Herria kantatzea, gauzak gehiegi behartzea iruditu zaio. Eta nahiago izan du “etorritzko” jatortasunean herriaren biziera hartu eta bere horretan kantatu. “Erri bat bere oiko lanbideetan, jolasetan, ipuietan, sukaldean, bizian, eriotzean agertu” nahi izan du, poemaren hitzaurrean dioen bezala. Eta bi orrialde geroago, hona nola adierazten digun bere helburua biribilki: “Res ipsa loquatur’, ots, ‘gauza bera mintza bedi’. Bein esan: Euskalherriak nire agoz mintzatu izatea nai nuke. EUNETATIK larogeita amabost, gutxienik, nere begiz ikusiak, neure belarritz entzunak ditut; nik josi ta moldatuak ordea, batasuna ar dezaten”.

Horra, beraz, erabakia moldekoarena. Badaki zer kantatu behar duen. Badaki zer olerkitu —barka berriz ere— nahi duen. Herria du kantagai.

Eta herria duenez gero gai, kantatzeko era ere, herriarena hautatzen du. “Bertsua bai, asma nezakeen —dio— ene belarrieri ta jakintsuren batenari obeki letorkiona; ez ziteken ordea erriarena, ta ez errirakoa. Erri-bertsua egin dut ortaz, erriak kantuz ematen diguna”.

Hala ere badu kezka, gogortxo atera ote zaion lehenbiziko partean. Baina bere horretan uzten du. Beste norbaitzuren bertsoak ere, onak direlako ez-ezik gaizto xamarrak direlako ere atsegin omen zaizkio herriari, eta berak ez ditu ... goxatzen, ez errazten eta ez orrazten. Pello Mari Otaño hartzen du lekuko bere alde.

Horregatik, “nere lan oni kera berri bat ematen saiatu naiz —dio—: ez Homer’ena bezain lasaia, ez Horati’rena bezain tinkoa, bien artekoa baino”.

Hor dugu, bada, argi eta garbi adierazirik, zer nahi den. Moldearena erabakia dago, eta moldekoarena ere bai. Badakigu zer poesia-mota hautatzen duen Orixek eta zer poesi-gai hartzen duen. Nola eta zer egin esana dago. Egi-tea falta da bakarrik.

Eta 1931.garren urtean bere sorterrira biltzen da Orixe, neurri horietako poema egiteko enkarguarekin.

Eta horrenbestez esanik eman dezagun poemaren “Sortaroa” deitu dugun hori, eta sar gaitezen poemarekin.

## “EUSKALDUNAK”

*Euskaldunak* izenarekin bataiatua dagoen obra haundi hau eskuetan har dezakeenak, jakin beza —hartu izan duenak badaki— hamabost kapitulu edo kantutan banatua dagoela, eta beste hainbat eta hainbat kantu-kumetan, kantu nagusiaren barnean sartzen baitira beste kantu batzuk, asko, herritik jasoak, eta zenbait, egileak berak jarriak. Den-dena bertsoan dagoela esan beharrik ez dago. Eta aipatu hamabost kantu horietatik aparte, bi bertso gelditzen dira. Bata poema hasi aurretik dago eta bestea bukatu ondoren. Aurrenekoa otoitz bat da, eta bigarrena fetxa. Hona hemen bata eta bestea:

“Zatozkida, Goi-arnas, / eizu nerekin lan,  
erri baten arnasa / mamitu dezadan.  
Geroak csan beza: / “Erri bat izan zan”;  
edo-ta ats emaiogun / ontan iraun dezan.”

Bigarrena:

“Bertsolariak oitura baitu  
esaten urtegarrena,  
bertso-lan oni, jakin zer urtez  
eman diodan azkena:  
Kristo jaiorik emeretzireun  
ogei ta amalagarrena...  
Ederrik badu, Arena du, ta  
txarrik badu, neronena.”

Apustulariek aitaren eginez bezala hasten du bere lanaldia gure Orixek eta urtea izendatuz bukatzen, bertsolariak bezala.

Kantu horietan zehar kontaktzen den historia ez da luzea. Urtebetekoa da guztia. Urte bateko herriko festen bezperan hasten da, eta herri bereko hurrengo urteko festa bezperetan bukatzen. “Urren astean Pestaburu da: Urteak eman du adarra” esanez amaitzen da poema.

Melodia soil batez bezala hasten da “Euskaldunak” poema. Historia honen gerta-leku den herria zein den eta non dagoen esanez hasten zaigu: “Naparroa zarrean Larraunen Uhitzi”. Horra hor herriaren izena, eta beraren geografia. Eta hala jarraitzen du: “belar goxo tartean eper-kabi iduri. Belardien inguruz, kabi horren esi, baso maite dago, ikazkin lantegi”. Hor ditugu izena, geografia eta orografia.

Baina horrekin ez dago guztia esana. Egileak egin nahi duen historia honetarako, bada beste zerbait jakitea komeni zaiguna. Herrixka batean kokatzen den historia honek, “erri baten arnasa mamaitu” nahi du, ez herrixka batena bakarrik, eta horretarako zer alderdi duen hautatu den herri horrek, jakin behar dugu. Eta hala, beste Euskal Herrietako jendeek beren kultur-hazia hemen nola erein zuten aditzera emango zaigu hurrengo bertsoan. “Bost ipui eder orok emen erein zuten” esango digu. Beraz, Naparroako Uhitzi, euskaldunen izate osoaren gordailu gertatzen zaigu horrela. Eta bertan eta beraren bidez ezagutu daiteke Euskal Herri osoa.

Eta oraindik hari bakarreko doinuan segitzen du haserako musika honek. Historia honetan guztian erdi-gune izango dugun bikotearen izenak ematen dizkigu hurrengo bertsoan, eta maitez elkarki lehenengo aldiz noiz behatu zioten esaten. Garazi eta Mikel dugu bikotea. Hor bukatzen da hari bakarreko melodia, eta sinfonia hasten da. Herritar guztiak sartzen dira kontzertu horretan eta bakoitza hari banarekin.

Pesta-bezpera dute eta hor dator artzai bakoitza bere ardia lepoan duela, “maldar oro bera”. Eta etxe bakoitza “arategi” bihurtu da. Beste behin ere gertatuko da hori historia honetan: Txerri-hiltzerakoan. Etxeko denek ardi-hilketa-lanetan dihardute. Aitonak badu zereginik; amonak zer esanik ez, eta haurrek ere bai. Besterik ezean, behatu egiten dute; bi begiak zabalik. Eta ardiaren pus-kak zeharo jasotzen dira. Larrua ere bai, besteak beste, balio baitu “babesteko aurraren ipurdi”. Hori pintzelada!

Eta honetan, hor non entzuten den Amazkarren behera danbolin soinua. Zubietako Pontxo da, urtero bezala. Horrek jarri du hankajokoa! “Kabia aizatzen ditzen txorien antzera / etxe-barna garbituz haurrak atarira”. “Mutilak, auzo-etxera doaz. An dute danbolin”. Nexkak oraindik etxeko lanetan; baina hasi dira galdezka “apaltzera danbolin zeinietan ote da”. Eta pesta usaiak badu beste bisitaririk. Eskaleak ere hasi dira biltzen eta beste zenbait “esku-kako” ere bai.

Hori da martxa, gaur esango lutekeen bezala, sortu dena herrian! Hor da biltza denak. Bakoitzak bere papera du. Horrela dihoakie arratsalde. Eta “gatzemaile gaxoa” sutean utzita, ohera doaz denak ordua datorrenean, biharamon alaiaren pozetan.

Pestaburu dute. Inork ez du perezarik jeikitze. Zutitu dira denak. Ez dira bakarrik izango egun honetan. Badatozkie pestale berriak. Beren “kabi” duten herri horren inguru, dakigunez “baso maitea dago, ikazkin lantegi”. Basagizon hauek ere pestara datoz. Ez dira arrotzak herrian. Igandetan han izaten dira eta ezagutzen dituzte. Gaur ez da igandea, baina jai hartu dute, eta han datoz herrira, sartu aurretik garbitu bana hartuz iturriko askan. Zeinen deskribapen polita hauen sarrera!

Bada beste pestalerik. Bidea betean dator jendea auzo-herrietatik. Hor dira denak. Egin da bilera. Mezatarako deia ari du kanpandorretik. Elizara doa jendea. Meza nagusia dute. Gero dantza izango dute. Hurrena bazkaria. Bazkari haundia. Eta berriro dantza atsaldean.

Ekarri du Orixek herria plazara. Hor dira denak. Bakoitzak erakutsiko du bere burua, dagokion lekuan eta orduan eta moduan, eta antzeztuko du bere papera. Hor dira haurrak, hor dira aiton-amonak, hor da jende larria, hor da gaztejendea. Hitz batean, hor dira antzerki honetan antzezle izango ditugun herritar eta auzo-herritar denak. Ikus dezagun bakoitzak zer dantza egiten duen eta Orixek nola kontatzen digun.

## HAURRAK

Zer koadroak pintatzen dituen Orixek, mundu honetan zorioneko gerra bakarra egiten duen jende honekin! Esan dugu lehen txistulariarengana nola joan diren? Esan ez duguna da, atsaldekoa egiten gelditu den etxean han dituela denak begira. Han daude denak dena begi. Beren begiratzuz josia daukate txistularia. Meriendatzeko atera dioten gazta zaharrak ez omen, txistulariak berari begira hainbat zulo. Zeinen konparazio polita!

Elurrak ere ekar araziko dio Orixeri haurra aurrera. “Haurraren jostailu” definituko du ederki “zai-bageko iriña”. Zer bi definizio! Eta gure ttikiak kristoak egiten jarriko ditu, eta gurasoaren bizkarrean eskolara bidean, eta negu egun metzeko iluntze luzeetan, afalondoko errezoak noiz bukatuko zai-zai, amonaren ipuiak entzuteko. Baina ipuietan ere ezina datorkio, eta loak “menderatzen du” gure haur bihurria.

Hor ditu haurrak txerria hiltzerakoan ere. Aurrenetik bildurti, txerria azkenetara etorri arte. Baina gero hankapetik bialdu ezin. “Barnean sartuko aut” desapio egin behar izan dio bati txerribiltzaileak, hustu duen txerriaren barnean sartuko duela, alegia. Odolkiak partitzerakoan ateratzen duten tema ere, nola

utzi aitatu gabe? Biak etxe berera joan nahi, bai baitakite non zer propina ematen duten odolkiekin joandakoan.

Eta haurrak, jakina, elizan meza laguntzen. Hiletetan apaiz asko dator meza ematera, eta badakite zeinek ematen duen propinarik haundiena, eta han dabilta zeinek haren meza harrapatuko gure txikiak. Bat ez da haserre. Eskuzabalenarena harek harrapatu du, eta halako eskupekoa jaso du. Joan da etxera eta erakutsi du bere altxorra. Han dira komeriak! Ostu egin duela. Gure haurra negarrez. Noizpait jakinerazi die, ordea, zeini meza lagundu dion. Orduan denak paketu. Baraibarko apezak eman ziola jakin zutenean, denak trankil. Hartarainoxe izan behar zuen eskuzabala herri hartako erretoreak, Orixe mezalaguntzaile zen garaian.

Eta ezin dut utzi beste pasarte bat osorik aipatu gabe. Ihauteriak dira. "Emakunde" eguna. Haurrak aterik ate dabilta, ohituraz, "ziztor-miztor" esanez, puskak biltzen. Baina puskak biltzeko, "burni-burruntziak" behar dituzte, haietan puskak sartzeko. Hona haur baten kasua:

"Aur bat etxean negarti  
ez dula burni-burruntzi;  
aitak ain dio lizar zuzenez,  
aiztoz koska, burniz gori gori...  
Erdi-lotsaz badoa auzora;  
negarra doi-doi du geldi.

Lenen atean asi da,  
bildurrez, "ziztor-miztor"ka.  
Andre xaloak ekarri dio  
janaldi on bat lukainka.  
Goxoagorik izketan dio:  
"Ori burruntzi apaiña!"

Beste atetan berori.  
Poztu diote belarri.  
Etxeratzean, barna zabalduz,  
adierazi aitari.  
Ark: "Tutulu, ez nin esaten?  
Urrena sifiesta neri."

Zeini ez dio jartzen koadro honek ezpaina lerdajarior, begia irriz, eta bihotza jauzlari? Izugarria da. Horrelakoxe edertasunez pintatzen du haurra Orixe poeman zehar.

Eta hor dira haurrak "Eultzia" kantuan. Zeinen ederki ekarriak berei dagokien lekura: hesiaren gainera. Eta apustukoan? Nola kontatzen duelako haundiek eta txikiek hartzen duten postura ezberdina. Hitz batean, paregabeki jarririk daude haurrak poema osoan zehar berei tokatzen zaien bezala.

## AITON-AMONAK

Hor azaltzen da aitona pestetarako ardia hiltzen duten unetik. Erritualki, ardiaren barea erretzea dagokio, eta hori egiten du. Hor da aitona baxter-lan guztietan. Arto berria iritsi denean, lehen ehotaldia prestatzen ikusiko dugu errotarako. Neguaren etorrera ere berak gaztigatuko du “Ai ene” batekin, beste inor baino lehenago joko baitu bera hotzak. Metereologoa ere bera izango dugu. Bera aterako da leihora, zertsu eguraldi egingo duen ikustera. Eta lan-detako gurutzeak ere berak sartuko ditu San Joan egunez patxara ederrean. Eta nola ez? Aitonari konta araziko zaio behin eta berriz sega apustu famatua. Eta beti hitz berekin kontatuko du.

Baina aitona tertulian jarriko digu Orixek. Eta esan beharko dizkio, aditzeko pazientziz datorren arrotzari, bere bizitzako pasadizo guztiak. Esan beharko dio gaztetan non ibili zen lanean, non zer ikasi zuen, noraino iritsi den bere ibilaldietan eta non ez den oraindik izana. Orixeren aitona Donostian izan gabea da. Horrelaxe pintatzen du gure aiton hortz-bakar, “erratza” iduri duten bekaindun, eta abar.

Eta amona? Lehengoan entzun genituenak entzunda, jakina zegoen poeman amonak har zezakeen lekua. Gainera, poema honetan, ama haurretan galdutakoa da protagonista emakumezkoa, eta ez da harritzekoa amona lakoa izatea. Mutilak ere, berriz, badu amona, eta bienak agertzen dira.

Amona da sukaldeburu. Etxeko martxa ere haren kontu dago. Hura da otoitz-gidari. Harek esango die gazteei, hara edo honera doazenean, non nola ibili behar duten. Amona da txerria hiltzean odola nahasten duena. Amona da odolkiak nora eraman eta nora ez esaten duena. Amona da soroko babarrunen ardura daukana, harek jarri behar baitu egunero eltzea etxeko guztientzat. Amona da eskaleari ohea jarriko diona. Hor da beti amona poeman zehar bere zeregin xehe eta ugarietan. Eta hor da ere amona San Joan suaren gainean erritualki salto egiten, bere gona luzeak altxata, sua moteldu denean.

Eta amona da hiltzen dena ere poema honetan. Bizi izan den bezain ixil eta paketsu doa beste mundura. Langileak eta zintzoak izateko esango die bakarrik. Gazteak ere hiltzen omen dira, baina zaharrak denak egiten baitira, amonaren hileta dakar poema honek. Tajurik hoberenean emana dago amonaren irudia poema honetan.

## BESTEAK

Hautzaroaren eta zahartzaroaren artean hor dira beste bi adinak ere: Hel-duak, edo larriak edo haundiak, eta gazteak. Hauen papera ere paregabeki pintatzen da poema honetan.

Itzai, nagusia dabil, bai gaztain karretoan, bai belarrekoan eta bai eultzian. Honek erabakitzen du eultzia noiz zabaldu, eta noiz altxa. Hauek baieztatzen dute ere gazteen arteko amodioa. Ikustekoa da bien bi aitek hartzen duten posturaren deskribapena. Gure baserritarrik herri txikietako zimitorioetan beren arteko gauzaren bat aparte tratatzen inoiz ikusi duena, ahoxabalik gelditzen da koadro horren ederrez.

Gaztea ere bere gisara ageri da poeman. Gaztea, bizkorra da, odolbero, jostalari, pestazale eta pestagile. Eta hala da epopeia honetakoa. Gaztea doa mendira eultzirako behor bila. Gaztea da segari belarrekoan. Gaztea da apustulari. Eta gaztea da borrokari. Ihauterietan, jan-edanaren faltarik ere ez, eta berotzen dira behar baino gehiago eta hor hasten dira burrukan. Ez nolanhiko burruka! Haserrea dakar berekin familiartera. Eta hori deskribapena Orixek egiten duena, herrixka bateko bi familiaren arteko ezinikusia adierazteko. 245. orrialdea ez dago irakurri gabe uzterik. Horiak dira trazoak. Zer da hori!

Eta gazteak festan, jakina. Festa asko da poema honetan. Ia lan guztiek badute ondotik beren dantza errituala. Eultziak badu. Artazuriketak badu. Artajorrak badu. Euleak ere bai. Eta gero festak. Herriko festak, ihauteriak, San Joanak eta beste. Eta hor, gaztea da batez ere lehentasuna duena.

Eta gaztea da, nola ez, poema osoan zehar irauten duen amodiozko historiaren protagonista ere. Mikel eta Garazi dugu bikotea. Pestaburu egunean dantzalagun hautatzen du Mikelek Garazi. Eta badu detaile bat izugarrizko grafismoz Orixek adierazten duena poeman. Neska horretaz interesatua dagoen mutil bati ekar erazten dio Mikelek neska. Plazan egiten den isiltasuna, entzun erazi egiten du Orixek bere poeman. Egun horretatik hasi, eta bien aita biek baietza ematen dioten arte maitasun horri, igotzen igotzen doa emozioa. Eta handik aurrera baretu egiten da, lasaitu eta sendotu. Arku baten jarraiera hartzen du istorioak. Nolako konparazioz dagoelako adierazia! Zenbat modutako aitzakiz berrituak maite solasak, eta zer psikologiak pintatuak bi maitaleak!

Eta istorio horren bazterrean Gorritxo. Hori du izena Garaziz interesatua zegoen beste mutilak. Aztikerien bidez berritu nahi du, neska berriz eskuratzeko esperantza; baina huts egiten diote hainbatek. Hala ere badu oraindik beste bat. Azkena du hau. Eta han dabil froga egin ala ez egin dudana. Alde batera nahi, eta bestera oker aterako ote zaion beldur da. Froga hori zera da: belar sortatxo bati su eman, eta kea norbere aldera okertzen bada, oraindik besteak maite duen seinale da. Kea zuzen gora joaten bada, baztertu duen seinale. Froga horrekin dabil atrebitu ezinik gure Gorritxo. Ikus nola kontatzen duen Orixek ("Iruleak" kantua, 201 lerroa):

(16 orrialdean sartzeko, 24. lerroaren ondotik)

“Artean, izkutuka ari da Gorritxo,  
 iztupa ta suaren aztarrena artzeko.  
 Gerriederrek Mikel ote-dun maiteko,  
 luza arren, nai baiño len zaigu jabetuko.

Sorgin-agin-zuloan koka-âla mullaztar  
lurrean ipintzen du ikara ta dardar.  
Eskutan atzera artu, artu-utz milla bidar,  
bere burua atzitzen naiko lana dakar.

Igartxo dalakoan, agoz du lurrintzen;  
erabiliz, ordea, geiago sorgintzen.  
Zer gogora, zer asma, ez deusik asmatzen;  
noizbait utzi bear ta, erabat dio uzten.

Zarpatik atera du sua piztekoa,  
—erretzalea da ta berekin daroa—,  
Mustulur'en an dago zuti pagondoa:  
aren katxak luzaro sua gorde doa.

Oilloa baitabilla suge erdi-illarekin,  
lepo-illea lastu, el nai ta ausar ezin,  
mokozko bat eman ta izuz igesegin,  
mizto ager-gordeak eman bailezo min?

Ala ari da Gorritxo su eman, ez eman;  
irazeki baiño l en bai baitakus egan.  
Urrats alperrik aski eginik birundan,  
kokoriko jartzen da belauak ikaran.

Ustekabe luza du suaren eskua,  
onela laburtuko du arnas-estua.  
Garra arturik, ber ela billa nai zerua,  
ezin zuzenagorik jun da aingeru-sua.

Itzali zaio oraintxe l ngo itxaropena:  
neskaren orde, gauzek diote etsipena.  
Ark ere emain lioke, dudarik ez dena.  
Mikeli jarkitzeko non, orde, kemena?"

Hori konparazioa! Hori adierazteko modua! Azkenean nahi gabe bezala eman dio su, eta hor bukatu da gure Gorritxoren itxaropena. Eta ez da gehiago amodiozko historia honetan agertuko.

Horra hor gure obra honetako pertsonaiak sailkatuak eta aipatuak. Bikoteaz aparte, izengabeak ia denak. Izendunik ere ekarri zitekeen. Badira beren izenez eta abizenez aitatuak daudenak.

Hor da Iriondo, basamutilen burua, egundaino hitz bat bestea baino altuago inori esan beharrik izan ez zuen gizona, mendiko kamaina etxeko ohe zuria baino maiteago zuena lo egiteko, goizean ANGELUS batekin bere mutilak altxaerazten omen zituena. Ederra gizona, ederrik bada!

Hor da Marimil Dorronsoro, andre ikaragarria, festa jartzaile amorratua, bertsolaria, lanean bezain ardoa edaten bizkorra. Hori figura! Badakar elkarrizketa lehergarri bat ama-alaben artean, alabaren dotea eta amaren ardotarako joera dela eta. Hori andre puska!

Hor da Baraibarko apaiz txintxo. Hor da Mikela Otsanbelakoa, uhitzia-  
ren ongile haundia. Eta hor da beste horrelakoren bat.

Eta hor da Mikela Borda. Emakume gajo bat, atzeratu horietako bat. Horrek ere badu lekua poema honetan. Eta nolako lekua! Hura ere ateratzen dute dantzara eztaietan eta bertso bat kantatu ere egiten du. Mundiala da emakume honen deskribapena.

Lehenengoa “Gaztañaro” kantuan egiten zaigu, 713. lerrotik aurrera. Hona:

“Ortzak zorrotzik, su-atzean da  
Mikela-borda baldana.  
Amaika baba ta artopil bero  
ango sukaldean jana.  
Etxeko andre zabalak ba du  
zabala bear-izana:  
otordu batez errez jan leza  
lau egunetako lana.

Arta-jalkitzen aria duzu  
bazkaltzetik afaltzera;  
arek jalkia zamari batek  
ba deramake eiotzera.  
Etxe-orde dun baztar artara  
laister datorke atzera,  
egun ta iguzki egin ez dizun  
artzekoa lakatzera.

Okotzaundia, begi-ekzela,  
galbaia aiñeko ezpaiña;  
ortzez ederra, agoz betea,  
gaiñez dario mingaiña.  
Oiñak igesi, besoak zintzil,  
koloka du bizkar-gaiña;  
ipurdia, aldiz, galdu- eiñean:  
orra neskazar liraiña.”

Bigarrena “Eztaietan” kantuan dago, 489. lerrotik aurrera. Hona:

“Sukuntzak, deneri par arazten diela,  
dantza-lagun billa du Borda’ko Mikela;  
ezetz aurrena; baiña etsi de berêla;  
oinbestetzat etzuten artu, gazte zela.

Ur bedeikatu-arri dirudin ezpaina  
aurrenik ezatu du ibiliz mingaina;  
beatzak an bustita jasoz anka-zaina,  
agerian jarri du gorpuz ez liraina."

Hor dira denak. Baina hor, batez ere, herria da. Herri izenik gabea. Hori da egiazko protagonista. Eta poema honetan herritar bakoitza hor dago dago-kion bezelako. Noiz, eta non, eta nola; baina denek dute beren lekua. Orixeren arte harrigarria, horiekin denekin herriaren irudi ezin-esan-alako ederra ematea da.

Denak orekan daude, direnez diren, ez haundiago ez txikiago, ez hobe ez txarrago. Beren-berenean ageri dira. Bada jende ederrik, eta bada nolabaitekorik; baina ederra, ez da ederregi; eta itsusia, ez da itsusiegi. Ez da inor baztzen. Denek egiten dute herria, den bezela-bezelako.

Eta herri langile, alai, pobre eta xehe hau, benetako herri bat da. Ez da aingeruzko herri bat. Erreala da. Egiazko errealismoz erakutsia, ez errealismo asmatuzkoz eraikia. Bada onetik eta bada txarretik. Gogor salatutako akatsak ageri dira. Eta bakoitzari berea ematen zaio. Apaizak ere ez dira salbatzen. Beraz, ez da herri-erakusketa erromantiko bat. Kritikoa da. Hitz batean, egiazkoa da. Benetakoa.

Hori da Orixek arterik liluragarrienez aurkezten duen herria. Berea. Berak ezagutu eta bizitu izan duena. Ez du asmatu beharrik izan. Berak aurkezpena egin du bakarrik. Estetika bat eman dio. Eta zer kolorea duen pintura horrek! Eta zer joskura dantza horrek! Eta zer egokitasuna antzerki horrena!

Eta antolamendu hori egiterakoan, herri horren beraren estetikaz baliatu da, herri horrek ere bai baitu bere estetika, eta ez Greziak eta horrelako haundi-maundiren batek bakarrik, zenbaitek uste dezakeen bezala. Estetika horren era-onda du Orixek bere arte lana. Eta herri horrek landurik zituen zenbait pieza ere, asko, hor sartu ditu tartean: Ipui, kantu, dantza, aztikeria, esaera, eta zer ez! Pieza horiek denak tartean direla, eta bakoitza berari dagokion lekuan kokatuz, eta horien araberakoak berak asmatuz, tajutu du Orixek, etxe baten fatxada bat bezala, gure herriaren irudi paregabea.

Nola lotzen dituelako elkarrekin pieza horiek denak! Beti badu konparazio berria pertsonaia bera modu berriz deskribatzeko. Beti badu irtenbidea aurrera segitzeko. Beti badu kolpe orijinala egoerak errematatzeke. Berdinak diruditen sekuentzia guztiek ezberdina dute soluzioa eta irteera. Inoiz ez dago inspirazioa atertu zaion aztarnarik. Hori etorria.

Hitz batean, gizaki batena izatea beste mugarik ez du poema honek ederean. Hobe izateko, jainko batena beharko zuen izan.